



OIARTZUNGO
UDALA

AUZO BILERAK 2023

AUZO: ITURRIOTZ

Data-Fecha	Hasiera ordua-Hora inicio	Bukaera ordua-Hora final
2023/10/10	19:00	21:00

BILDUTAKOAK-Participantes

Udal ordezkariak: Representantes del ayuntamiento	Joana Mendiburu, Agustin Lekuona, Ekain Susperregi eta Garazi Urdampilleta.			
Herritarrak- Vecinos/a	Euskaraz: 14		Elebitan:	
	Emakumezkoak-Mujeres: 9		Gizonezkoak-Hombres: 5	
	<30 urte: 2	31-50 urte: 9	51-65 urte:3	>66 urte:

AKTA-Acta

Gaia-Tema	Ekarpena eta iruzkinak-Aportaciones y sugerencias
Aurkezpena- Presetación	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da. <i>Se ha expuesto el orden del día que se va a tratar a lo largo de la Asamblea.</i>
Legealdirako proiektuak- Proyectos para la legislatura	Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman dugu. Se han expuesto las líneas de trabajo principales o estratégicas ABIAPUNTUA- Punto de partida 1) Aurreko legealdietatik jaso duguna oso baikorra izan da, eta horrek lagundu egiten du: herriak udalean duen konfiantza, zorrik gabeko udala izatea, talde polita sortu dugu, teknikariek zinegotzietatik izan duten harrera oso ona izan da. Proiektuen aldetik ez gara zerotik hasi, aurreko taldeak egindako lanaren jarraipena egingo dugu. <i>Lo que hemos recibido de anteriores legislaturas ha sido muy positivo, y eso ayuda: la confianza del pueblo en el ayuntamiento, el ayuntamiento sin deudas, hemos creado un grupo muy bonito, la acogida de los técnicos con los concejales</i>



OIARTZUNGO
UDALA

ha sido muy buena. Por proyectos no hemos empezado de cero, seguiremos el trabajo realizado por el equipo anterior.

- 2) Herritarrekin lan egiteko formula berriak bilatu behar ditugu, abiapuntua auzolana izango litzateke, UDALGINTZA HERRIGILEA, arriskuak aukera bihurtzeko udal politika. Herritarrak dira protagonista, udalak baliabideak jartzen ditu, baina ondoren sektore ekonomiko bat egon behar da bultzada emango diona.

Tenemos que buscar nuevas fórmulas para trabajar con la ciudadanía, el punto de partida sería el trabajo vecinal, UDALGINTZA HERRIGILEA, la política municipal de convertir los riesgos en oportunidades. La ciudadanía es la protagonista, el ayuntamiento pone los recursos, pero luego hay que tener un sector económico que le dé impulso.

- 3) Hauteskundeak irabazi ditugu, eta programan hitz emandakoa bete egin behar dugu.

Hemos ganado las elecciones y lo prometido en el programa tenemos que cumplirlo.

- 4) Krisi egoera orokor batean gaude, baina horren aurrean Oiartzundik bertatik egoerari buelta ematen hasi beharko genuke

Estamos en una situación de crisis general, pero ante ello deberíamos empezar a dar la vuelta desde Oiartzun a la situación

LEGEALDI PLANA- PLAN DE LEGISLATURA

3 lan-lerrotan banatuta dago: herritarrak (ongizatea, kultura, euskara, zaintza...), lurraldea (lurraren zein herriaren antolaketa) eta antolaketa (udaletxearen funtzionamendua eta zein giza-baliabide dituen)

Se divide en 3 líneas de trabajo: ciudadanía (bienestar, cultura, euskera, cuidados...), territorio (organización del suelo y del pueblo) y organización (funcionamiento del ayuntamiento y sus recursos humanos)



OIARTZUNGO
UDALA

LAN ILDO ESTRATEGIKOAK- LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE TRABAJO

- 1) ELIKADURA BURUJABETZA: gaur egun, udalak laguntzen dituen hainbat egitasmo daude martxan. Udalak hasierako bultzada eman die elkarte hauei, eta ondoren beren bidea egin dute. Herriko lurrak erosten jarraituko dugu 1.sektorea bultzatzeko, herriko sukaldeak hornitu nahi ditugu herrian bertan ekoizitako jakiekin (herriko ikastetxeak, zahar etxea...). Herrian badaude ekimen ugari beren kabuz proiektuak bultzatzen ari direnak, baina ez dute foro komunik elkarlanean aritzeko.

SOBERANÍA ALIMENTARIA: en la actualidad se están llevando a cabo diferentes proyectos de ayuda municipal. El Ayuntamiento ha dado un impulso inicial a estas asociaciones y han seguido su camino. Con el fin de impulsar el primer sector trabajaremos en la compra de terrenos, se pretende dotar a las cocinas locales de alimentos producidos en el municipio (colegios locales, residencia de ancianos...). En el pueblo hay muchas iniciativas que están impulsando proyectos por sí mismas, pero no tienen un foro común de colaboración.

- 2) ENERGIA BURUJABETZA: sortu berri da Argitturri kooperatiba (hiruki horren parte den zutabe sozioekonomikoa). Udal mailan zein herri mailan neurriak hartu behar dira klima aldaketa dela-eta.

SOBERANIA ENERGÉTICA: se acaba de crear la cooperativa Argitturri (pilar socioeconómico que forma parte de este triángulo). Hay que tomar medidas tanto a nivel municipal como a nivel local sobre el cambio climático.

- 3) MUGIKORTASUN JASANGARRIA: herrian ohiturak aldatzen hasi behar dugu. Bizikletak lehenesteko plana egiteko asmoa dago (aparkalekuak...). Beste asmo bat da Arraguan intermodala eskatzea, oiartzuarrok aukera izan dezagun Euskal Herriko hainbat lekutara joateko: Gasteiz, Bilbo, Iruñea...

MOVILIDAD SOSTENIBLE: debemos empezar a cambiar los hábitos en el pueblo. Se prevé realizar un plan de priorización de bicicletas (aparcamientos...). Otra



OIARTZUNGO
UDALA

de las intenciones es pedir una parada intermodal en Arragua, para que los ciudadanos de Oiartzun tengamos la oportunidad de ir a diferentes lugares de Euskal Herria: Vitoria, Bilbao, Pamplona...

- 4) OSASUNA ETA ZAINZTA: Zaintzadi programaren inguruan hitz egin dugu, bakardade ez hautatuan dauden herritarrak laguntzeko egitasmoa da. 22 herritarrek eman dute dagoeneko izena ekimen honetan. Zaintzadiren ideia da udalak laguntzea, baina herritarren sare baten laguntzarekin batera. Zaintza askotan osasun arazoak konpontzearekin lotuta egoten da, baina udalaren ardura da bizitza aktiboa sustatzea, bakardadeari laguntzeko modua ere baita horrelako ekimenak antolatzea.

SALUD Y CUIDADOS: Hemos hablado sobre el programa Zaintzadi, un programa de apoyo a la ciudadanía en soledad no elegida. 22 ciudadanos ya se han apuntado a esta iniciativa. La idea de Zaintzadi es ayudar que el ayuntamiento ayude pero con la colaboración de una red ciudadana. En muchos casos el cuidado está relacionado con la resolución de problemas de salud, pero es responsabilidad del Ayuntamiento promover la vida activa, la forma de contribuir a la soledad y la organización de este tipo de iniciativas.

- 5) KULTURA EUSKARAZ: bizi ditugun garaiek euskalgintza hauspotzeko beharra erakusten dute (etorkinak, euskararen aurkako erasoak...). Landetxe dagoeneko eraiki dugu, eta orain kultura plana egiteko momentua da. Gazte sortzaile ugari dugu herrian. Irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak aztertuko ditugu. Ondarea balioan jarriko dugu, eta udalaren lokalak eskura jarriko ditugu herriko kultur-sorkuntza bultzatzeko.

CULTURA EUSKARAZ: los tiempos que vivimos demuestran la necesidad de impulsar nuestro idioma, el euskera. Hemos construido el edificio Landetxe y ahora es el momento de hacer el plan cultural. Tenemos muchos jóvenes que crean en el pueblo. Estudiaremos nuevas posibilidades para fomentar la lectura. Vamos a seguir valorando el patrimonio y trabajaremos para poner a



OIARTZUNGO
UDALA

	<p><i>disposición de los ciudadanos-ciudadanas locales municipales para impulsar la creación cultural del municipio.</i></p> <p>LEGEGINTZALDIAN MARTXAN DIREN ETXEBIZITZA SUSTAPENAK. PROMOCIONES DE VIVIENDA EN FUNCIONAMIENTO DURANTE LA LEGISLATURA: Altzibar zein Iturriozko promozioen berri eman da. Elizaldeko Urkabe Baitako eremuaz hitz egin da. Babes ofizialekoetan interesa izanez gero, Etxebiden eman behar da izena, eta Altzibarreko tasatuetarako urriko plenoan irekiko da izena emateko epea.</p> <p><i>Se informa de las promociones tanto de Altzibar como de Iturrioz. Se habla de la zona de Urkabe Baita de Elizalde. En caso de estar interesado/a en las VPO, la inscripción se realizará en Etxebide y el plazo de inscripción se abrirá en el pleno de octubre para las tasadas de Altzibar</i></p> <p>Udal etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eskaini da. <i>Se ha ofrecido la información sobre la oficina municipal de vivienda.</i></p> <p>UDAL ORDENANTZEN IGOERA- INCREMENTO DE LAS ORDENANZAS MUNICIPALES: %1,5 igoko dira tasak. Udalak sekulako ahalegina egin du azken urteetan ez igotzeko. Hala eta guztiz ere, KPIa baino gutxiago igo dugu gure herrian, azken batean, oreka bilatu behar dugu kalitatezko zerbitzuak izateko.</p> <p><i>Se incrementarán las tasas en un 1,5%. El Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo en los últimos años para no subirla y esa subida ha sido menor que el IPC, en definitiva, tenemos que buscar el equilibrio para tener servicios de calidad.</i></p>
2024ko aurrekontu aurreikuspena- Previsión presupuestaria 2024	<p>AURREKONTUA- PRESUPUESTO</p> <p>Lan ildo eta erronka hauentzat 20.200.000 euro ditugu. Arloz arlo ondorengoa izango da banaketa: Herritarren arloak %49, lurraldeak %36 eta antolaketak %15.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

	<p><i>Para estas líneas y retos contamos con 20.200.000 euros. La distribución por áreas será la siguiente: 49% para gastos de población, 36% para gastos de territorio y 15% para gastos de organización.</i></p> <p>Honakoak izango dira inbertsio nagusiak: mugikortasuna (bidegorri sarea, aparkaleku seguruak), energia (efizientzia energetikoan pausuak eman, energia berriztagarrien instalazioak), liburutegia birdiseinatu, herritarrentzako arreta gune bakarra jarri udalean, futbol zelai artifizial berria, udal eraikinen mantenua, hirigintza (Urkabe baitako etxeak eta Altzibarko promozioa), kulturgintza (kultura plana landu eta Landetxe erreferente bihurtu), ongizatea (bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa).</p> <p><i>Las principales inversiones serán en la movilidad (red de bidegorris, aparcamientos seguros), la energía (dar pasos en eficiencia energética, instalaciones de energías renovables), el diseño de la biblioteca, establecer un único punto de atención al ciudadano en el ayuntamiento, el nuevo campo de fútbol artificial, el mantenimiento de los edificios municipales, urbanismo (viviendas de Urkabe y promoción de Altzibar), la actividad cultural (elaborar el plan cultural y crear en la comarca en un centro de día para personas en situación de exclusión).</i></p>
Auzoa-El barrio	<p>Mugikortasuna: Plazara bizikletan igotzea kostatzen da. Auzoetan gauza gehiago balego (Kutxa, antzokia...) ez legoke plazara kotxean igotzeko beharrik. Elizalden dena antolatu ordez auzotara ekartzea eskatzen da.</p> <p>Kalea (Elizalde zentroa) eta auzoen artean arrakala handia dago. Movilidad: <i>Cuesta subir a la plaza en bicicleta. Si hubiera más cosas en los barrios (Kutxa, teatro...) no habría necesidad de subir a la plaza en el coche. Se pide que en Elizalde no se organice todo sino que se traiga actividades a los barrios. Entre la calle (centro Elizalde) y los barrios hay una gran brecha.</i></p> <p>HELTAko tailerretan talde handiak osatzen dira. Nahiz eta denborarekin taldea txikitzen joaten den. En los talleres de HELTA se forman grandes grupos. Aunque con el tiempo el grupo va disminuyendo.</p>



OIARTZUNGO
UDALA

Aurrekontu handiena duten gaiei (Kiroldegia adb) kendu eta gutxien dutenei (bizikidetz) jarri. *Quitar a las areas con más presupuesto (Polideportivo, etc.) y poner a las que menos tienen (convivencia).*

Zenbat erabiltzaile daude kiroldegian?

Ez dugu erantzuten jakin. Kiroldegiko energia gastua aztertzeke argiteria sektorizatzeke lanetan gaudela azaldu da. Energia plana egiten ari gara eta gai hau sakonki aztertuko da. *¿Cuántos usuarios hay en el polideportivo? No hemos sabido responder. Se explica que estamos trabajando en la sectorización del alumbrado para analizar el gasto energético del polideportivo. Se está elaborando el plan energético y se estudiará en profundidad este tema.*

Termek zenbat erabiltzaile dituzte? Duten erabiltzaile kopurua eta herritarren proportzioa esanguratsua izan daiteke. *¿Cuántos usuarios tienen las termas? El número de usuarios y la proporción de la población puede ser significativa.*

Etxebizitza- Vivienda:

ITU2: Ze alturako etxebizitzak izango dira? Auzoko zentroa masifikatua dago, eta auzo nortasuna galtzeko beldur dira auzotarrak. Gazteagoek diote, Iturriotzen bizi nahi dutela eta horrelako pisurik gabe ez dutela aukerarik izango. Udalak azaldu du etxebizitzak eraikitzeke lur eremu horiek ez direla udalarenak, udalaren esku dagoena egiten da; kopurua eta neurriak negoziatu.

ITU2: ¿Qué altura tendrán las viviendas? El centro del barrio está masificado y los vecinos temen perder la identidad de barrio. Los más jóvenes dicen que quieren vivir en Iturrioz y que sin esas viviendas no tendrán oportunidad. El Ayuntamiento explica que esos terrenos para la construcción de viviendas no son de propiedad municipal, se hace lo que está en manos del Ayuntamiento, se negocia la cantidad y las medidas pero no se puede decidir todo.



OIARTZUNGO
UDALA

Tronpeoko malda norantza bakarrean jartzeak iturrioztarrentzat zailago bihurtzen du plazara igotzea. Norantza bakarrean jarri izanaren arrazoia inoiz ez zaio auzoari azaldu. Kiroldegiko bidea norantza bakarrean jartzeak Altzibarko kotxe guztiak Tronpeotik jaisteak dakar. Indigaztaina zuhaitzak herri lurretan landatuta daudela esan da. Elikako baratzeen ondoan dagoen bide zatia oinezkoentzat ez da segurua. Argiztapena hobetu daiteke.

Zaborren kamioia kontrako norantzaz igotzen da. Puntu hauek aztertuko dituela erantzun du Udalak. *La disposición de Tronpeo en un sentido único dificulta la subida a la plaza de los vecinos y vecinas de Iturriotz. El motivo de su puesta en un solo sentido nunca ha sido explicado al barrio. La disposición del vial del polideportivo en un solo sentido supone la bajada de todos los coches de Altzibar por el Tronpeo. Se dice que los árboles del lateral están plantados en terrenos comunales. El paso que hay al lado de la huerta de Elika no es segura para los peatones. Se puede mejorar la iluminación. El camión de basuras sube en sentido contrario. El Ayuntamiento responde que estudiará estos puntos.*

Kotxeentzat baden asko daude eta kotxean hondatzen dira. Neurri horiek gune arriskutsuetan jarrita daude, abiadura moteltzeko asmoz. *Hay muchos badenes para los coches y se estropean los coches. Estas medidas se sitúan en zonas peligrosas con el fin de reducir la velocidad.*

Bidegorrian bizikletan abiadura handian eta nahi duten lekutik ibiltzen dira. *En el bidegorri circulan en bicicleta a gran velocidad y por donde quieren.*

Garañoko iturriko herri-bidea oso txukuna geratu da berrikuntzen ondoren. **Saroberrekan bada zati bat puskatua dagoena.** Udalak begiratuko duena jakinarazi du. *El camino vecinal de la fuente de Garaño quedado muy bien tras las reformas. En Saroberreka hay una parte rota. El ayuntamiento informa que lo mirará.*



OIARTZUNGO
UDALA

Skate parkean esertzeko banku gehiago ongi legoke. Udalak itzalpeko espazioetan eserlekuak jartzea aztertuko du. *Más bancos para sentarse en el parque de Skate estaría bien. El Ayuntamiento estudiará la colocación de bancos en espacios de sombra.*

Ozentzio kaleko 28 parkean argi gehiegi dago eta traba egiten du.

Legez argiztapen minimo bat egon behar dela azaldu da, segurtasunagatik. Hala ere, udalak zonaldea begiratuko du. *En el parque 28 de Ozentzio kalea hay demasiada luz y molesta. Hay una iluminación mínima por seguridad , no obstante, el Ayuntamiento comprobará la zona.*

Ibarreko gasolindegian autobusa geldirik badago, Iturriotzera joateko ikusgarritasuna murrizten du. Ispilu batekin agian erraztuko luke sarbidea errepidera. Errepidea Aldundiarena izanik, eskaera egingo duela jakinarazi du Udalak. *La parada del autobús en la gasolinera de Ibarre reduce la visibilidad hacia Iturrioz. Con un espejo podría facilitar el acceso a la carretera. Dado que la carretera es de Diputación, el Ayuntamiento informa que va a realizar la solicitud.*

Frontontoiak dituen zuloetatik pilotak atzeko bizilagunen balkoira joaten dira. Sareren bat jarri ote daitekeen galdetu da. Gaia aztertze konpromisoa hartu du udalak. *Por los agujeros del frontonoi las pelotas van al balcón de los vecinos de atrás. Se pregunta si se puede instalar alguna red. El ayuntamiento se compromete a estudiar el tema.*

Adineko jendea garañoko erreka oinez joaten da, bertan dauden bi banku jada usteltzen hasiak dira. Berritzeko eskatu da. Udalak gaia aztertuko du. *Las personas mayores van andando al río de Garaño, hay dos bancos que ya se están pudiendo. Se solicita su renovación. El Ayuntamiento estudiará el tema.*

Autobusak eta kotxeak Iturriotzko errotondan abiadura handian pasatzen da jendea (Iturriozkoak ez direnak) eta ceda ez dute errespetatzen. Los



OIARTZUNGO
UDALA

autobuses y coches circulan a gran velocidad por la rotonda de Iturriotz y no respetan la ceda.

Kotxeak aparkatu ezin diren lekuetan aparkatzen dira eta oztopo izateaz gain, segurtasuna ere arriskuan jartzen dute, Anbulantzia edo bonberoak emergentzia kasuan ezingo lukete maniobra egin. *Los coches estacionan en lugares en los que no se puede aparcar y además de obstaculizar, ponen en peligro la seguridad, la Ambulancia o los Bomberos no podrían maniobrar en caso de emergencia.*

Aparkaleku falta dago auzoan. Parkina betea egoten da eta elkarteko parkinean kotxeak aparkatuta ere leku falta dago. *Hay falta de aparcamiento en el barrio. El parking está lleno y en el parking de la asociación también falta espacio.*

Pottolo aurreko zebra bideak altura handia du, ez du rebajea egina. Udalak begiratuko duela jakinarazi du. *El paso de cebra frente a Pottolo tiene una gran altura, no esta rebajada. El ayuntamiento afirma que lo revisará.*

Autokarabana asko dago auzoan eta leku asko kentzen dute. *En el barrio hay muchas autocaravanas que quitan mucho espacio de aparcamiento.*

Santiyutako garbitasuna. Auzoko jaien ostean, Abuztuan 1 eta 2an, ez omen zien auzoko eremuak garbitzera pasa. Herri osoan orokorrean garbitasun falta nabaritu dute Iturriotz auzoko bizilagunek.

Udalak duen galbiketa zerbitzua eta lorategien zainketa egiten duena ez dira enpresa bera. Aurrekontuetan kale garbiketara eta lore ziantzara bideratzen den aurrekontua azaldu denez, datu hau berriz azaleratu du udalak, egundoko inbertsioa egiten da horretan. Kale garbiketak Iturriotzen astean behin egiten da. Herritarren ohiturak aldatzearen garrantziaz ere hitz egin da.

Limpieza de las fiestas del barrio. Después de las fiestas del barrio, el 1 y 2 de agosto, nadie pasó a limpiar las zonas del barrio. En general, los vecinos del



OIARTZUNGO
UDALA

	<p><i>barrio de Iturriotz han percibido falta de limpieza en todo el pueblo. El servicio de limpieza del Ayuntamiento y el de jardinería no es la misma empresa. Tal y como se ha expuesto en los presupuestos el presupuesto destinado a la limpieza viaria y a la floricultura, este dato ha sido recapitulado por el Ayuntamiento, lo que supone una importante inversión. Las limpiezas de calle se realizan una vez por semana en Iturrioz. También se ha hablado de la importancia de cambiar los hábitos de la ciudadanía.</i></p> <p>Auzo lokaleko paretan biniloa jartzea eta zokaloak aldatzea eskatu da, azken hauen pipiak janda baitaude. <i>Se solicita la instalación de vinilo y cambio de zócalos en la pared del local del barrio, ya que estas últimas están comidas las termitas.</i></p>
--	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,14
Ponentes: Las explicaciones	
Bilera ongi gidatu da	8,14
Ponentes: Dirección o orientación de la reunion	
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,43
Metodología	
Auzotar kopurua	4,29
Asistencia	
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,29
Participación	
Saioa probetxugarria izan al da?	8,00
¿Ha sido provechoso?	
Egunaren egokitasuna	8,14
¿Día apropiado?	
Orduaren egokitasuna	8,43
¿Hora apropiada?	
Lekuaren egokitasuna	8,57
¿Sitio adecuado?	